



**intxaurrondo**

# Gazteek eman behar diote bizitza auzoari

Iñaki Uranga jaiotzaz intxaurrondotarra dugu eta betidanik bizi izan da Intxaurrondo kalean. Ikastolaren sortzailetako bat izandakoa, egun «Artzak Ortzeok» elkarteko presidentea da eta ikastolan idazkari lanak egiten ditu.

**Noiztik zara «Artzak Ortzeok» elkarteko bazkide?**


Ezin dut urterik zehaztu. Nere aita bazkidea zen eta txikitatik ezagutzen dut elkarrea. 30 bat urterekin bazkide egin nintzen eta orain arte.

**Zer funtzionamendu dauka elkarreak? Eta zein ekintza?**

Ohizkoa den bezala, batzorde bat dago eta momentu honetan ni naiz presidentea. Ekintzak elkartearen izenean egiten dira, baina elkartetik kanpo. Komisio antzeko bat dago eta honek antolatzen ditu ekintzak: danborrada, Santa Ageda kuruak eta auzoko jaiak.

**Zein desberdintasun ikusten dituzu elkartean urteak pasa ahala?**

Jendeaz gain, desberdintasunik ez da somatzen. Lehen, elkarte honek auzoko ekintza guztiak egiten zituen, bakarrazelako. Orain elkarte gehi-



Iñaki Urangak segurtasun falta ere nabari du auzoan bere esanetan «lapurretak ia egunero gertatzen baitira».

ago daude. Bestela, gauriak eta pertsonak aldatu dira bakarrik.

**Galiziako etxea, zentru extremeñoa... egin dituzte auzoan. Zein iritzi daukazu horiei buruz?**

Ez dute gure elkartean antza handirik. Hona etorri dira, baina ez dute elkartean funtzionamendua guk bezala ulertzen.

**Ikastolako sortzailetako bat izanik, nola ikusten duzu ikastola gaur egun?**

Gauzak asko aldatu dira. Ikastolaren hasiera oso gogorra izan zen eta gurasoen artean lan pila egiten zen. Orain gurasoak ez dira lehen bezala ekintzak egitera sartzen. Ikastola profesionalizatu egin dela esan daiteke.

**Nola ikusten duzu ikastola berriaren erakuntza?**

Oso beharrezkoa. Kriston aurrerakuntza da, instalakuntzen aldetik bereziki. Lehen ez genituen laborategia, liburutegia... eta beste hainbat gauza

izango ditugu. Baina denetatik pasa dugu. Burokraziarekin egin dugu topo eta momentu honetan, hori hasteko sinadura bat bakarrik falta zaigu. Hurrengo hilabatean has-tekoak dira lanak.

**Egiten ari diren etxe guztiekin, nola ikusten duzu Intxaurrondo Zaharraren etorkizuna?**

Ia-ia hilda dago, baina jende gaztea etortzen hasi da eta auzoa berritzen hasi da. Ziklo bat dela esan daiteke: gu zahartzen ari gara eta etorri diren gazteek eman behar diote bizia auzoari. Guretzat, goiko auzo hori beste mundu bat izango da beti.

**Zer behar du Intxaurrondo Zaharrak?**

Hirigintza aldetik, ez da posible ezer egitea. Baina zerbitzu aldetik, oso kaxkar gabiltza. Esaterako, dagoen jende zahararekin, ez dago egoitza egokirik. Zaharrentzat zerbait egiteko ordua dela uste dut. Bestalde, Udalaren aldetik, auzoetan ez dago interes handirik eta etxeak bakarrik egiten ditu. Horrela, gure auzo lo egiteko auzo bilakatu da. Alde zaharrean behintzat, bi elkarteen artean bizitza pixka bat sortzen da.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

ARGAZKIA: ROXALIO FERNANDEZ